

KANPAINA CARITASEN, PASTORAL BARRUTIEN ETA PARROKIEN ALDE



CAMPAÑA DE CÁRITAS, UNIDADES PASTORALES Y PARROQUIAS

**GABONETAKO KANPAINA:
NAVIDAD EN COMUNIDAD. BIZI
BATERA**

**CAMPAÑA DE NAVIDAD:
NAVIDAD EN COMUNIDAD. BIZI
BATERA**

2025EKO ABENDUAREN 21A

21 DE DICIEMBRE DE 2025

**ABENDUALDIKO
4. DOMEKA (A)**

**DOMINGO 4 DE
ADVIENTO (A)**

Liturgia lagungarriak

Subsidios litúrgicos

Atarikoak:

- Gogoratu ezinbestekoa dala lagungarriok alkarte bakotxaren gorabeheretara moldatzea luzera eta hizkerari dagokienez.
- Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan eraginkortasunez parte hartzea.
- Egun egokia da gaurkoa, eukaristia liturgia beren-beregi zaintzeko: ogi eta ardaoaren aurkezpena eta altararen behealdean itziko dan kolektarena. Holan egiten bada, diru-batzearen arrazoiak azaltzeko oharra irakurri arte ez gara dirua batzen hasiko. Eukaristia otoitza nabarmendu gorespenak kantatuz, ogia era esanguratsuan zatitu "Jaungoikoaren Bildotsa" abesten dan bitartean, jaunartzea...

Notas previas:

- Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.
- Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación del pan y el vino y también de la colecta, que se deja a los pies del altar. Si se hace así quizá convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva. Destacar la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan significativamente hecha mientras se canta "Cordero de Dios", la comunión...

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Gabonak atarian doguz. Abendu aldiko azken domeka honetan, Maria itxaropenaren Ama Birjinari begiratzeko esaten jaku.

Berak irakatsiko deusku Jainkoa entzuten, Jainkoagaz egoten, Jainkoa maitatzen eta Jainkoari harrera egiten.

Caritasek Gabonetako kanpaina honetan gogoratzen deuskunez, «ilusinoz, aldaketaz, itxaropenez betetako aldia bizi dogu. Aldi barrea, ustea dauan, dagoeneko zerbait garrantzitsua gertatzen ari dala sinisten dauan gizakiarengan itxaropena ernarazoten dauan aldia. Itxaropenaren Jubileua bizitzera deitu gaituan graziazko urte berezia, barritze pespiritualerako sasoia eta itxaropenaren lekuko izateko, itxaropenean erromes izateko aukera.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Estamos a las puertas de la Navidad. Este último domingo de Adviento nos invita a fijarnos en María, la Virgen de la esperanza.

Cáritas nos recuerda, en este día de su campaña navideña, que vivimos un «tiempo de ilusiones, de cambios, de esperanzas. Tiempo nuevo, tiempo de hacer germinar esperanza en el ser humano que confía, que cree que algo diferente ya está sucediendo.

Año extraordinario de gracia en el que se nos ha convocado a vivir el Jubileo de la Esperanza, un tiempo de renovación espiritual y una oportunidad para ser testigos de la esperanza, para ser peregrinas y peregrinos de esperanza.

KANPAINA CARITASEN, PASTORAL BARRUTIEN ETA PARROKIEN ALDE



CAMPAÑA DE CÁRITAS, UNIDADES PASTORALES Y PARROQUIAS

Benetako itxaropenaren aldian gagoz. Kristau itxaropena, doea da, jasoten dogun grazia da, eta senidetasun eta alkartasunezko hazien itxura hartzen dau itxaropena kutsatzen daben eguneroko keinu eta ekintza zehatzetan ernarazoten diruan pertsona bakotxarengan».

Emon deiogun hasiera Eukaristiaren indarra emongo deuskun ospakizunari.

SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Jainko gure Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

KOROAREN ZEINUA ETA DAMU OTOITZA

Laugarren kandela biztuko dogu koroan. Gure inguruan, eta batez be ahulenengan, atzematen jakin dagigula eskatuko deusagu Jaunari. Zatoz bizkor, Jauna, zatoz gu salbatzera!

Laugarren kandlea biztu eta, ondoren, esan:

- Ilunpetan bizi diranen artean argi egitera zatozan munduaren Argia: Erruki, Jauna.
- Zure herria egia eta zuzentasunaren bideetatik zuzentzera zatozan gizadiaren gida: Kristo, erruki.
- Gure makaltasunaren zauriak osatzera zatozan Bizi-iturria: Erruki, Jauna.

OHARRA 1. IRAKURGAIRI (IS 7, 10-14)

Lehenengo irakurgaiari, profetak, Jaungoikoaren izenean, orakulua aurre iragarten dau: birjina batek umea izango dau. Jaungoikoa Israel bere herriagaz dagoala adierazoten dau profetak iragarpen honegaz.

OHARRA 2. IRAKURGAIRI (ERM1, 1-7)

Paulo apostoluak, Erromatarrei idatzitako gutunaren hasieran, kristau teologia laburbiltzen dau eta Kristoren misterioaz jarduten. Danok, Jaungoikoaren maiteok, Kristogan santu izateko eta misino ebanjelizatzailea beteteko dei egiten deuskun Jaungoiko Aitaren egitasmoaren barruan gagoz.

Estamos en el tiempo de la auténtica esperanza. La esperanza cristiana es un don, es gracia que recibimos, y toma forma de semillas de fraternidad y de solidaridad en cada persona que las deja brotar en pequeños gestos y acciones cotidianas que contagian esperanza».

Iniciamos la celebración en la que recibiremos la fuerza de la Eucaristía.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

La gracia y la paz de Dios, nuestro Padre y del Señor Jesucristo estén con todos vosotros.

GESTO DE LA CORONA Y ACTO PENITENCIAL

Encendemos en la corona la cuarta vela. Le pedimos al Señor que sepamos descubrirlo encarnado en nuestra realidad y en quien se hace presente de forma privilegiada, las personas más vulnerables. ¡Ven pronto, Señor; ven a salvarnos!

Se enciende el cuarto cirio. A continuación, se dice:

- Luz del mundo, que vienes a iluminar a quienes viven en tinieblas: Señor, ten piedad.
- Guía de la humanidad, que quieres abrir a tu pueblo sendas de justicia: Cristo, ten piedad.
- Fuente de vida, que vienes a curar las heridas de nuestra debilidad: Señor, ten piedad.

MONICIÓN A LA 1ª LECTURA (IS 7,10-14)

En la primera lectura, el profeta, en nombre de Dios, preanuncia un oráculo: una virgen concebirá. Con este anuncio, Isaías manifiesta que Dios está con su pueblo.

MONICIÓN A LA 2ª LECTURA (RM 1,1-7)

El apóstol Pablo, al inicio de su carta a los Romanos, habla del misterio de Cristo. Todos, amados de Dios, entramos en el proyecto del Padre, que nos llama en Cristo a ser santos y a cumplir la misión de evangelizar.

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Bat egin daigun otoitzean, Jaungoikoaren Semeak gizadi osoaren bidea barritu dagian.

- Eleizaren alde. Zentzuzko zerumuga barria ekartera dakarrenaren jaiotza ospatuko dogu; sasoi guztietan itxaroten doguna pobretasunez jantzita dator. Eleizak harrera, abegia eta senidetasuna suspertu dagizala beti, gure bizitzari zentzuna emonez. Eskatu deiogun Jaunari.
- Caritasen alde. Gure konpromisoa suspertzeko eta galdu dabenei duintasuna itzultzeko konpromisoa dogu; giza eskubideak zainduko diran mundu zuzenagoa eraikitzeko konpromisoa; banan-banako interesen gainetik guztion ona sustatzeko konpromisoa; danona dan etxea zaintzeko konpromisoa. Caritasek eta honi laguntzen deitsoenek mundu barria amestu dagien beti eta dei egin deiguen mundu hori egia bihurtu dagigun, garan eta daukaguna banatuz. Eskatu deiogun Jaunari.
- Munduko agintarien alde. Pertsona bakoitzaren duintasuna autortzea, senidetasuna eta itxaropena bizteko gogoia ezinbesteko dirala gogoratzen deuskuez Gabonek. Munduan agintea dabenak batez be baztertuen aldeko zerbitzu eta eskaintzazko eredu izan daitezkan, danontzako lekua dauan gizarteak eraiki ahal izateko. Eskatu deiogun Jaunari.
- Gu guztion alde. Askotan larritasunek eta zentzunik-ezak zapaldutako munduan itxaropen-ikur izateko dei egiten jaku. Dei egiten jaku ilunpeetan argi egin dagigun, etsipenez jantzitako lekuetan itxaropenaren lekuko izan gaitezkan. Gabonak kristau senez bizi dagiguzala, ingurukoei argi eginez eta mundu hobea egiten saiatuz. Eskatu deiogun Jaunari.

Aita, zure Eleiza erne dago zure Semearen zain eta bere erreguak zuzentzen deusuz. Onartu eizuz ontasunez. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

ORACIÓN UNIVERSAL

Unámonos en la oración para que el Hijo de Dios renueve el camino de la humanidad entera.

- Vamos a celebrar el nacimiento de quien viene a traernos un nuevo horizonte de sentido, el esperado de todos los tiempos que viene envuelto en un desconcertante vestido: la pobreza. Para que la Iglesia sea siempre comunidad que se distinga por la acogida, la hospitalidad, el encuentro fraterno, y así llene de valor nuestra existencia. Roguemos al Señor.
- Tenemos la responsabilidad de avivar nuestro compromiso en devolver la dignidad a quienes la han perdido; en la construcción de un mundo más justo en el que se salvaguarden los derechos humanos, en la promoción del bien común por encima de intereses personales, en el cuidado de la Casa Común. Para que Cáritas y quienes colaboran con ella, no dejen de soñar con un mundo mejor y nos inviten a hacerlo realidad compartiendo toda la riqueza que somos y tenemos. Roguemos al Señor.
- Cada Navidad nos recuerda la necesidad de reconocer la dignidad de cada persona humana, para hacer renacer un deseo mundial de hermandad y esperanza. Para que quienes tienen poder en el mundo sean modelo de servicio y entrega, especialmente a los excluidos y así sea posible una sociedad donde cuenten todas las personas. Roguemos al Señor.
- Se nos invita a ser signo de esperanza en un mundo muchas veces oprimido por la angustia y el sinsentido de la vida. Recibimos la llamada a transmitir luz donde hay espacios de tinieblas, a ser testigos de esperanza donde la vida se ha estancado en esperas desesperadas. Para que vivamos la Navidad con sentido cristiano, siendo luz para quienes nos rodean con el deseo de hacer el mundo mejor. Roguemos al Señor.

Padre, tu Iglesia vigilante en la espera de tu Hijo, eleva a ti sus ruegos. Acógelos en tu inmensa bondad. Por Jesucristo, nuestro Señor.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Familia, senidetasuna eta gizarte adiskidetasuna eraikitzeke deia jaso dogu. Deialdia, Eleiza lez, pertsona guztien osoko inklusinoa hots egin dagigun, oinarritzko eskubideak errespetatu eta era guztietako gehiegikeriak salatu dagiguzan.

Bizi dogun aldi honetan ezinbesteko dau gure mobimentua. Gaur batu daiten dirua Caritasentzat izango da. Onuradun izango diran guztien izenean, eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

OTOITZA JAUNARTZE OSTEO ISILUNERAKO

Gizakia hurratik ezagutu gura zenduan,
barrutik ezagutu gura ginduzuzan,
gure sentimentuen esperientzia izan,
malkoen, musuen zaporea dastatu.

Horregaitik gizon egin zinan, mamitu,
gutako bihurtu.
Maitasun-tirania, egundoko maitasuna
eskatzen eban borondatzeko maitasuna izan zan.

Desarmatuta, txirotuta etorri zinan,
solidario pobretasun eta txikitasunagaz.
Zerbitzatzaera etorri zinan, ez zerbitzatua izatera,
botikak, ardao barria, zaurientzako ukendua ekarri
zenduzan,
eta ogi ugari, ogi biziak,
premia handia egoan-eta.

Behartsu egin zinan gu aberasteko,
guri sendotasuna emoteko ahuldu egin zinan,
maitasun eta graziazko Jainko-gizona.

<http://www.mercedariasmisionerasdeberriz.es/>

ABADEAREN AGURRA (BEDEINKAPENAREN OSTEAN)

Prestatu dagigun gure bihotza, Gabon honeetan
besteak maitatzearen eta besteen maitasuna
jasotzearen esperientziaren poza ospatu eta
konpartitu dagigun.

Zoaze Jaunaren bakean!

MOTIVACIÓN A LA COLECTA

Se nos invita a construir la familia, la fraternidad y la amistad social. Una llamada a que como Iglesia proclamamos la inclusión plena de todas las personas, donde se respetan los derechos fundamentales, denunciando cualquier tipo de abuso.

Este tiempo en el que vivimos requiere con urgencia nuestro movimiento. La colecta de hoy será destinada a Caritas Diocesana. En nombre de quienes se han de beneficiar de ella, gracias por vuestra generosidad.

ORACIÓN DURANTE EL SILENCIO DE LA COMUNIÓN

Querías conocer de cerca al ser humano,
querías conocernos desde dentro,
tener de nuestros sentimientos experiencia,
a qué saben las lágrimas, los besos.

Por eso te encarnaste, te entrañaste,
te hiciste uno más.
Fue un amor voluntario el que obligaba,
tiranía de amor, amor inmenso.

Venías desarmado, empobrecido,
solidario con la pobreza y la pequeñez.
Venías a servir, no a ser servido,
traías medicinas, vino nuevo, ungüento para las
heridas.
y panes abundantes, panes vivos,
porque había mucha necesidad.

Te hiciste pobre para enriquecernos,
para darnos fortaleza te hiciste débil,
Dios-humano, de amor y de gracia

<http://www.mercedariasmisionerasdeberriz.es/>

DESPEDIDA DEL PRESIDENTE (DESPUÉS DE LA BENDICIÓN)

Preparemos nuestro corazón, para que esta Navidad
podamos celebrar y compartir la alegría de nuestra
experiencia de amar a las demás personas y de
sentirnos amadas por ellas.

Podéis ir en paz.